

hauteman

detektatu

atzeman

[ikus *antzman / atzeman* (2008-11-07)]



hauteman


Esanahi hauekin erabili ohi da literatura-tradizioan:

ohartu, nabaritu, sumatu

Hona adibide batzuk:

- *Katuak gehiago ez gaitzan **atzeman**, kroskoila bat lepotik behar zaio eman. Jiten bada, soinutik dezagun **hauteman**.*

Gratien Adema “ZALDUBY”, 1908.



- Lapurra **hauteman** zuten sotoan, baina kikildu egin ziren eta ez zuten **atzeman** nahi izan.
- Etxera itzuli zen eta inork ez zuen bidean **hauteman**.

kroskoila 'kaskabilo', 'txilin'

Egun, zientzien arloan asko erabiltzen da **hauteman**.

Esanahi honetara lerratu dela dirudi:

Kanpoko irudiak, soinuak, inpresio edo zirrarak, sentimen edo sentipenak, eta abar zentzumenen baten bidez jasotzea.

Inguruko hizkuntzen ildoan: *percibir, percevoir, to perceive*

ZIO bildumako liburu honetatik hartu ditugu ondoko diapositibako adibideak:

LENIHAN, John (2007). **Giza gorputza lanean**. Itzul.: Irene Aldasoro. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Hona adibide batzuk:

- Belaun azpiko tendoiak erraz **hautematen** dira izterreko muskuluak tolesturik daudenean.
- Belarri-hegalak, entzumen gutxiko pertsonak garai batean erabili ohi zuten belarri-tutuaren gisa, bestela **hautemango** ez lirakekeen soinuak harrapatu eta tinpanorantz bideratzen laguntzen du.
- Zenbait substantzia kimikoren kasuan, mila aldiz sentikorragoa da txakurra gizakia baino, eta beste substantzia askoren kasuan, milioi bat aldiz baxuagoa da txakurraren **hautemate**-atalasea.

detektatu

Esanahi hau dakar *Harluxet* entziklopediak:

Prozedura, bereziki fisiko edo kimiko, baten bidez, zuzenean ezin igar daitekeen zerbaiti antzeman, agerian jarri.

Ingelesaren bidez hedatu da inguruko hizkuntzetera:

to detect > detectar, détecter

Hona adibide batzuk:

- Beste substantzia batzuk, hala nola proteinak, aminoazidoak, bitaminak eta glukosa, oso erraz **detektatzen dira** odolean, baina ia ez dira agertzen gernuan.
- Lurrikarak **detektatzeko** erabiltzen diren sismografoek bezala jokatzeko dute egitura horiek
- Etil merkaptanoa oso kontzentrazio txikian **detektatzen da**: orratz-buru baten neurriko tanta bat aski litzateke Houstongo Astrodomoko milioi bat metro kubikoak usain horretaz betetzeko.

LENIHAN, John (2007). *Giza gorputza lanean*. Itzul.: Irene Aldasoro. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.